



Iakovos HATZISTAVROU | AFP



IKUSMIRA

GALDERAK HARRESI DIRENEAN ERREFUXIATU OLDEAREN AURKA

Greziako Lesbos uhartera iritsi da. Dozena erdi kilometrorra dagoen Turkiako lurraldetik egin duen bidaia tik onik atera da -beste batzuek ez dute zorte hori izan- baina uraren ertzean sakabanatuta dauden txaluparen arrastoetan sumatzen da bizitako arriskua. Hondakine- tan eta bizkarrez begiratuta ere antzematen zaizkion

malkoetan. Ondoan duen boluntarioa haren tristura sakona arintzen saiatzen da. Baina nor da? Ze aurpegi du? Arabiarra da ala Asiako begi kizkurak ditu? Siriarrak al da? Norengandik ihesi? Ez da ISIS edota Al-Nosra talde jihadistekin borrokan aritutakoa izango gero... Edota, agian, egungo jende-oldearen krisia aprobetxatuz Europa aberatsaren ateak zabalik ikusi dituen traidorea (bere aberriarekiko, noski). Zein demontre da? Galdera ugari, bai, baina erantzunen bila egiten ez diren galderak, norberaren iritziak edota, are okerrago, politika diskriminatzaileak justifikatzeko baizik. Zer gara gu, europarrok? Horra hor galdera. **Dabid LAZKANOITURBURU**